

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josu Ibargutxi San Pedro

*Eibar,
Gipuzkoa
(1949)*

Aurkibidea



Biografia



Josu Ibargutxi San Pedro Eibarren jaio zen 1949an. Ama Eibarkoa zuen, eta aita Ubidekoa; hiru seme-alaba izan zituzten eta Aldatzen bizi izan ziren. Hamasei urte ingururekin ezker abertzalearen inguruan militatzen hasi zen, propaganda sortzen eta banatzen, pintadak egiten eta abar. 1968an, aldean zeraman lehergailu batek eztanda egin zion, zauri larriak jasan zituen eta espetxeratua izan zen. 1976an, Segoviako ihesaldian parte hartu zuen presoetako bat izan zen. 1977an utzi zuten libre herri-presioengatik eta harrera ikaragarria egin zioten Eibarren, herriko beste presoekin batera. Frankismoaren krimenen aurkako auzirako euskal plataformaren bozeramailea da

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Zintak

EIB-716

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-07-20
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-725

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-07-20
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. ETAre lehenengo ekintza nagusia

- **Erref:** EIB-716/003
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:01:34. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Hamaika urte zituela, 1961ean, Imanol Laspiur bere koinatua atxilotuta eraman zuten, eta trauma bat suposatu zuen Josurentzat. ETAre lehenengo ekintza nagusienagatik leporatuta eraman zuten, beste hainbatekin batera: Rafa Albizu, Pontxo Iriarte, Milkel Antza, Imanol, Txillardeg...

2. Imanol Laspiurren atxiloketa eta torturak

- **Erref:** EIB-716/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Ikaragarritzko trauma izan zen hamaika urteko Josurentzat, bere koinatua atxilotuta eraman izana. Meliton Manzanasek torturatu egin zuen, eta gogoratzen du bere arreba etxera, odolez betetako arropekin etxera heltzen. Imanol Laspiur-ek gero kontatzen zuen Meliton Manzanasek "dantzan egin zuela" bere gainean. Espetxera kondenatu zuten eta 4-5 urtera atera zen. Euskalgintzan egin zuen bere ibilbidea.

3. El Correoko bulegoetan bonbak eskuetan eztanda egin zion

- **Erref:** EIB-716/005
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

15-16 urterekin hasi zen Josu militantzian. Ikurriñak ipintzen zituzten, petardoak, bonba txikiak... 1966rako ETA hasia zegoen ekintzak egiten normaltasunez. 1968an, Eibarko El Correo egugariko bulegoetan bonba bat ipini zuten, frankismoko publizitate-tresna bat zelako. Gabeko 22.30etan programatu zuten bonba eta kalean zeudela, Josuri goizegi zela iruditu eta berriro itzuli zen, erlojua atzeratzera. Bonbak eskuetan lehertu zion, zaurituta gelditu ziren Josu eta Patxi Jaka eta polizia atxilotu zituzten. Koldok,

hirugarren kideak, ihes egin zuen eta etxean atxilotu zuten. Josuren zauriak ez ziren hil edo bizikoak izan, baina odolostuta geratu zen. Polizia asko zegoen Eibarren orduan, Maiatzaren 1eko mobilizazio ilegalengatik. Hainbat hilabetez ospitalean eman ondoren, espetxera sartu zuten.

4. Frankismo garaiko sindikatu bertikala eta bestelako klandestinoak

- **Erref:** EIB-716/007
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

60. hamarkadan jaio zen Comisiones Obreras, baina UGT eta ELA bazeuden lehenagotik ere. Comisiones Obreras sindikatuaren jatorria. Eibarko egoitza. Frankismo garaiko sindikatu ofizialak eta klandestinoak.

5. Komisaldegia San Agustin kalean

- **Erref:** EIB-716/008
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

60. hamarkadan, San Agustin kalean zegoen poliziaren komisaldegia. "Agustinoak" bezala ezagutuak ziren. Bertara eramaten zituzten manifestaldietan eta mobilizazioetan atxilotutakoak.

6. ETAre sendotzea 60ko hamarkarda amaieran

- **Erref:** EIB-716/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Eibarko kuadrilla guztietan, ilunpeko giro politikoa zegoen. Manifestaldiak oso prestatuak zeuden eta klandestinitate handia zegoen. Frankismoaren gainbehera sumatzen zuten. Aberri egunak. Urbiako kontzentrazioa. ETAre sendotzea (manifestaldiak, pintadak, sabotaje txikiak...)

7. 60ko hamarkada amaierako aldaketa nahia

- **Erref:** EIB-716/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:21:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Plazaratzen hasi zen frankismoaren kontrako isilpeko mugimendua: mugimendu sindikala, langileria, abertzaletasuna, kantuak, kultura... Iraultza kulturalak nazioartean ere.

8. Pintadak egiteko sistema asmatu zuten

- **Erref:** EIB-716/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Edozein lekutan egiten zituzten panfletoen kopiak. Pintadak egiteko, brotxak erabiltzen zituzten hasieran, baina gero beste sistema bat asmatu zuten, beirazko poteekin. Pintaden lemak: "Gora ETA", "Euskadi ta Askatasuna", "Elkartasuna eta Indarra", "Euskadi librea behar dugu", "Viva Euskadi"...

9. Multikopistarekin panfletoak egiten

- **Erref:** EIB-716/012
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Panfleto politikoak egiteko multikopistak erabiltzen zituzten. "Klitxe" edo eredu bat sartzen zuten makinan eta kopiak ateratzen zituzten. Sistema nolakoa zen kontatzen du.

10. Manifestaldi antolatuak, Guardia Zibila

- **Erref:** EIB-716/013
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Manifestazioak antolatuak izaten ziren: enpresa bateko grebagatik, norbait atxilotu zutelako... Batzuetan grisak edo guardia zibilak agertzen ziren.

11. Ideologia politiko ezberdinak, baina helburu bera

- **Erref:** EIB-716/014
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Kuadrillan edo lagunartean politikari buruz asko eztabaidatzen zen. Ideiak partekatzen zituzten. Ideologia politiko ezberdinak zituzten arren, denen helburua frankismoarekin bukatzea zen. Aldarrikapen nagusia politikoa zen, baina alde sozialetik joan behar zela ere konturatzen hasi ziren

12. 1967tik aurrera, eztabaida ideologikoa ETAn

- **Erref:** EIB-716/015
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:33:31. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

ETAren barruan, 1967tik aurrera gai ezberdinei buruz eztabaidatzen eta hitz egiten hasi ziren: langileria, kapitalismoa, komunismoa... Ordura arte ideia bakarra, Euskadiren askatasuna lortzea zen.

13. Bilera klandestinoak etxeetan

- **Erref:** EIB-716/016
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:37:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Bilera klandestinoak tabernetan eta etxeetan egiten zituzten. Erregimenak gogor zigortzen zituen etxe horien jabeak. Bertan materiala ere uzten zuten: ikurrinak, propagandak, panfletoak...

14. Poliziaren errepresioa kaleetan; atxiloketak

- **Erref:** EIB-716/017
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:37:27. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Beti izaten zen poliziaren errepresioa manifestaldietan. Herritarrak defendatu egiten ziren, harriak botata. Guardia Zibila nola jaisten zen Elgeta kaletik behera. Atxilotuz gero, kuartelean egoten ziren egun batzuetan. Manifestaldietan, etxeetan ere ezkutatzen ziren.

15. Burgosko prozesua, erregimen frankistaren porrot izugarria

- **Erref:** EIB-716/019
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:40:43. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Historikoki Trantsizioaren garaia ez zuen zuzenean ezagutu, kartzelan egon zelako. Trantsizioa Burgosko prozesuaren ondoren hasi zela uste du Josuk. Porrot izugarria izan zen frankismoarentzat. Erregimenaren barruan ere aldaketak eman ziren 1971-1972 urteetan.

16. Olatu antifrankista gora Estatu guztian

- **Erref:** EIB-716/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Estatuan, mobilizazio sozial asko ematen hasi ziren (Andaluzian, Ferrolen, Erandion, Granadan...) eta poliziaren indarkeria oso handia izan zen. Olatu antifrankista gora joan zen Estatu guztian eta nazioartean ere gauzak mugitzen hasi ziren.

17. Erregimen frankistaren kontrako jarrera Europan

- **Erref:** EIB-716/021
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:45:15. **Bukatu:** 00:48:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Willy Brandt egon zen Burgosko prozesuari buruz informatzen. Nazioartean erregimen frankistaren aurkako jarrera handitu zen. Europak ez zuen nahi Portugalgo Iraultza Espainian errepikatzea.

18. Kartzelatik erregimenaren aurka ere lanean

- **Erref:** EIB-716/022
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:48:11. **Bukatu:** 00:49:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Frankismoaren azken urteak kartzelan pasa zituen. ETAk klandestinoki informazioa pasatzen zien, baina ez ziren zuzeneko eragileak gatazkan. Hala ere, amnistia eta euskal presoek aldeko mugimendua beraiekin hasi zen (gose-grebak, ihesak...).

19. Kartzelako ihesek izugarri ahultzen zuen frankismoaren irudia

- **Erref:** EIB-716/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:50:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Kartzelatik ihes egiteko hainbat saiakera egin zituen Josuk. Basaurin adibidez, bederatzi preso ihes egin zuten eta ez zituzten inoiz harrapatu. Honek erregimenaren irudia asko ahultzen zuen.

20. Segoviako ihesa: lehenengo saiakera; "El Lobo" infiltratua

- **Erref:** EIB-716/025
- **Iraupena:** 1:02:21. **Hasi:** 00:50:39. **Bukatu:** 01:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako kartzelatik bi ihesaldi saiakera egin zituzten. Lehenengoa nola izan zen kontatzen du Josuk. 54 lagunek egin behar zuten ihes eta nahiko ondo prestatua egon arren, ez zen aurrera atera. "El Lobo", ETA-pm-ko zuzendaritzan zegoen eta berak eraitsi zuen operatiboa.

21. Gose greban, bigarren ihesaldi baterako ideia prestatzen

- **Erref:** EIB-725/001
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako lehenengo ihesaldiaren ondorioz, preso asko sakabanatu zituzten eta kartzela barruko erregimena gogortu egin zitzairen. 25 eguneko gose-greba egin zuten eta bigarren ihesaldi saiakera bat egiteko ideia hazten hasi zen.

22. Segoviako ihesaren bigarren saiakera I

- **Erref:** EIB-725/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Segoviako kartzelatik bigarren ihesaldia pentsatzen hasi zirenean, aurreko saiakerako estoldak begiratzera joan eta zuloa beraiek utzi zuten moduan zegoela ikusi zuten. ETA-pm-ko kideak hasi ziren lanak egiten.

23. Segoviako ihesaren bigarren saiakera II

- **Erref:** EIB-725/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kartzelatik ihes egiteko bigarren saiakerako lanetan hasi ziren ETA-pm-koak. Denek laguntzen zuten. Behin, hormak apurtzen zihardutela, presoekin batek zaratak antzeman eta zenbaketa deitu zuen. Ez zituzten harrapatu, baina tentsio handiko momentuak izan ziren.

24. Segoviako ihesaren bigarren saiakera III: lanen zaratak nola tapatu

- **Erref:** EIB-725/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kartzelatik ihes egiteko zuloa eta bidea prestatzeko, hormak apurtu behar zituzten. Zarata atera behar zuten lanak egitean eta hau nola tapatzen zuten kontatzen du Josuk.

25. Segoviako ihesaren bigarren saiakera arrakastatsua

- **Erref:** EIB-725/005
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Segoviako kartzelatik ihes egiteko bigarren saiakera oso ondo atera zen. 4-5 orduz, presoak ez ziren konturatu 29 pertsona falta zirenik. Arrakasta izateko aurrera eraman zuten estrategia kontatzen du. Gainontzeko presoek parte hartu ez bazuten ere, bazekiten besteek ihes egingo zutela eta lankidetzaren oso handia izan zen. Arratsaldeko 18.00etan konturatu ziren kartzelan, 70 presotatik 29 falta zirela.

26. Segoviako ihesa: presoaren arteko laguntasuna

- **Erref:** EIB-725/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako kartzelatik ihes egin ez zutenek gaizki pasatu zuten. Bazekiten besteek ihes egin zutela, baina isilik geratu ziren. Preso guztien lankidetzari esker heldu ziren Josu eta gainontzeko iheslariak mugara.

27. Mugatik 15 minutura harrapatu zituzten

- **Erref:** EIB-725/007
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako kartzelatik ihes egin zutenean, kamioi baten joan ziren Erroraino. Urepelera pasatzeko mugalaria ez zen agertu eta euren kabuz muga pasatzea pentsatu zuten. Guardia zibilak konturatu eta tiroka hasi ziren. Bakoitzak ahal izan zuen bezala ihes egin zuen. Josu goizeko 9etan harrapatu zuten beste kide batekin batera.

28. Burgeteko koartelean

- **Erref:** EIB-725/008
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:19:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Atxilotu eta Burgeteko koartelera eraman zuten Josu. Guardia Zibilak haietaz errukitu zirela uste du. Jaten eman zieten eta manta bat ere eman zioten.

29. Herri-mugimenduagatik atera ziren espetxetik, ez amnistiagatik

- **Erref:** EIB-725/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:22:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako ihesaldiaren ostean, urtebete gehiago egin zuen kartzelan. Herri-mugimenduagatik atera ziren espetxetik, eta ez amnistiagatik. Burgosko prozesuko presoek kasuan ezberdina izan zen.

30. Espetxetik atera eta prozesioak Eibarrera

- **Erref:** EIB-725/010
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:22:37. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Eibarko herriari oso eskertuta dago Josu. Espetxetik atera zenean, herrian izan zuen harrera kontatzen du. Bilbon harrera egin zieten 4000 pertsona inguruk.

31. Ikaragarritzko harrera Eibarren

- **Erref:** EIB-725/011
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Anaiak abisatu zion Eibarren jendetza zegoela Untzagan bere zain. Kotxe gainean ikurrina bat ipini zuten eta jendea gainera botatzen zen, pozez lehertuta. Txoko tabernara heldu, kotxetik atera eta lepoan eraman zuten Untzaga plazaren erdiraino. Etxera bidean ere jendea bere atzetik joan zen. Espetxetik bueltan, ama leihoan zegoen Josuren zain. Besarkada hura ez du

inoiz ahaztuko. Xabier Arzalluz Astelena frontoian zegoen, mitin bat ematen, eta Untzagara joatea eskatu zuen, presoek ongiatorria egiteko.

32. Espetxetik bueltan, ikaragarritzko babesa izan zuen

- **Erref:** EIB-725/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:31:53. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bederatzi urtean espetxean egon ondoren, Eibarko egoera politikoa oso aldatuta aurkitu zuen. Mugimendu sindikal handiak zeuden, jendearen arteko laguntasuna... Lehenengo asteetan beti kuadrillarekin, familiarekin... ibiltzen zen. Bi lagunek beti etxera laguntzen zuten Josu, bizkartzain bezala. Babes handia zeukan.

33. Familiak eramandako janaria beste presoekin banatzen

- **Erref:** EIB-725/013
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:36:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Herriko jende askok Josuren familiarentzat dirua, arropa, janaria... biltzen zuen. Europatik ere laguntzak heldu zitzaizkien. Espetxera janari asko heltzen zen euskal presoentzat eta preso guztiekin banatzen zuten: legatza, piper-beteak, bakailaoa... Lo egiteko kalitatezko zaku onak ere bazituzten.

34. Espetxera bisitak; irakurketak

- **Erref:** EIB-725/014
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:36:46. **Bukatu:** 00:39:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Laguntasun ikaragarria jaso zuten bai Josuk eta baita bere familiak ere Eibarren. Liburuak eskatzen zituenean, etxera zerrenda bat bidaltzen zuen eta bere lagunak berehala lortzen zituzten. Bisita asko zituen espetxean. Bertako irakurketak.

35. Trantsizioan, gazte gehienak mugimenduetan zeuden

- **Erref:** EIB-725/015

- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:39:31. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Trantsizioa orduko Eibarko gazteriarentzat garairik garrantzitsuena izan zen. Gazte gehienak mugitzen hasi ziren, mugimenduetan sartzen... Helburua, frankismoarekin bukatzea zen eta denak bat zeuden horretan. Burgosko prozesuak eragin handia izan zuen Eibarren.

36. Espetxeak heldutasuna ematen du

- **Erref:** EIB-725/016
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Espetxeak heldutasun handia eman zion Josuri. Lagun handiak egin zituen barruan eta elkarrekin bizitakoak betirako dira.

37. Espetxean egindako lagunak betirako dira

- **Erref:** EIB-725/017
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Segoviako ihesean parte hartutako presoek harremana oso estua izan da bizitza guztian.

38. Frankismoaren biktimen aldeko legerik ez dago

- **Erref:** EIB-725/019
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:51:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Frankismoaren krimenen aurkako auzirako euskal plataformaren bozeramailea da Josu. 2011an, terrorismoaren biktimen legea egin zuten, baina frankismoen biktimen legerik ez dagoela salatzen du Josuk. Memoria demokratikoaren legeaz hitz egiten du.

39. Herri-presioengatik geratu ziren libre, ez amnistiarengatik

- **Erref:** EIB-725/020
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:51:38. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kartzelatik atera zenean, paper bat eman zioten non amnistiagatik libratua zegoela esaten zen. 1977ko apirilean, ordea, ez zen amnistiarik egon. Josu eta gainontzeko presoak, herri-presioengatik libre geratu zirela aldarrikatze du. Suposatzen da, amnistiatu dituzten presoen expediente eta dokumentu guztiak ezabatu egiten direla. Josurena (eta beste hainbatenak) ez dira inoiz ezabatu, ez zirelako amnistiarengatik libre gelditu,

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com